

EUSKAL ETXEA MADRIL

Madrilgo Euskal Etxeko IV Olerki Lehiaketa euskaraz

Laugarren urtez Euskal Etxeak euskaraz idatzitako olerki lehiaketa iragartzen du.

1. Parte hartzaileak

Euskal Etxeko **bazkideek** zein Euskaltegiko **ikasleek** hartu ahal izango dute parte.

2. Olerkiak

Gaia librea izango da eta lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izango dira.

Epaimahaikideek imaginazioa, kreatibitatea eta aurkezteko modua baloratuko dute, batez ere, eta kontuan izango dute parte hartzaileen artean maila desberdinak egongo direla hizkuntzaren ezagutzari dagokionez; hortaz, jasanbera izango da ager litezkeen akats linguistikoekin.

3. Aurkezpena

Olerkiak mekanografiatuta edo ordenagailuz idatzita aurkeztu behar dira. Bertan ezin da idazlea nor den jakinarazi lezakeen daturik agertu, hots, **izenburua eta olerkia** besterik ez dira agertuko.

Olerkiak «EUSKAL ETXEA-Olerkiak»-era zuzendutako gutunazal handi eta itxi batean aurkeztuko dira. Gutunazal horretan ezin da beste ezer idatzi. Barruan, olerkiez gain, beste gutunazal txiki bat sartu behar da, itxita, eta bertan idatzi behar da: olerkiaren izena, egilearen izena, telefonoa eta bazkide edo Euskaltegiko ikaslea (edo biak) den.

4. Aurkezteko tokia eta epea

Lanak Euskal Etxeko Idazkaritan edo Atezaindegian entregatu behar dira 2015ko ekainaren 2a baino lehen.

5. Epaimahaia eta epaia

Euskal Etxeak hautatutako pertsonak osatuko dute epaimahaia. Epaia ekainaren 11a baino lehen emango da ezagutzera.

6. Sariak

Lehengoa: 75 euro
Bigarrena: 50 euro
Hirugarrena: 25 euro

Epaimahaikideek hala erabakiko balute, sariak eman gabe gera litezke.

7. Sarien banaketa

Ekainaren 24an izango da, 19:30etan, Pello Aramburu aretoan.

Madril, 2015eko apirila